



NIGHT&CO
Let's party with us

NIGHT&CO

BALIO PROPOSAMENAK:

Noizbait gertatu al zaizue festan irteteko desadostasunak egotea zuen lagun taldean? Zuen gustuak biltzen dituen diskotekarik aproposena ez ezagutzea? Ordu erdi itxaroten egotea barra aurrean eskatutako edaria jasotzeko?

Gure aplikazioak, Espainiako diskoteka guztiak bilduko ditu. Erabili ahal izateko lehen pasua, zure kontua sortzea da; horretarako, zure telefono zenbakia sartu behar izango duzu, zure argazkia jartzeko aukera izango duzu, eta nongoa zaren adierazi beharko duzu. Gure lehenengo zerbitzua. Beraz, zure inguruko diskotekak agertuko zaizkizu, eta diskoteka bakoitzaren ondoan, zenbat jende joango den, hau da, nobedadea (Gure aplikazioan nora joango zaren adierazteko aukera izango duzulako zer nolako giroa egongo den jakiteko...) Honelako zerbitzua:



BILBO:

Fever (200)- Leire Miguel, Jon Esteban, Leixuri Souto eta ezagutzen dituzun beste 50 pertsona joango dira ostiralean.

Mao Mao Beach (300)- Mainer Gonzalez, Leire Uribe eta ezagutzen dituzun beste 60 pertsona joango dira ostiralean.

Zure telefono zenbakia sartzean, zure kontaktuak agertuko zaizkizu gure aplikazioan, horregatik zure ezagunek egingo dutenaren berri izateko aukera izango duzu.



NIGHTS&CO
Let's party with us

Beste aplikazio batetik edo RRPP batengandik bereizten gaituena berritasuna, prestazioak, pertsonalizazioa, lana erraztea, diseinua, eskuragarritasuna eta erabilerraztasuna.

-Berritasuna: Ez dago gure zerbitzuak eskaintzen duen beste aplikazioarik, gure aplikazioak hainbat atal ditu, geroago azalduko ditugunak.

-Prestazioak: Jende ugari dago diskoteka barruan, eta oso erraza da galtzea. Beraz, mugikorrean GPSa konektatuta izanda, bilatzen dituzun pertsonak (zure kontaktuetan egotekotan) non dauden jakin ahal izango duzu. Whatsapp-en bidez, kontaktu bakoitzaren argazkia hartuko du eta diskotekan zehar bilatuko du pertsona hori.

-Pertsonalizazioa: Gurpildun aulkian dagoen jendea pentsatzerakoan, haientzat aukera berezi bat ezarriko dugu, hots, zein diskotekak dauden haientzat ahalbidetuta agertuko da.

-Lana erraztea: Zure kontsumizioa eskatzeko orduan, denbora asko itxaron behar da. Ordu erdi egon zaitezke itxaroten kontsumizioa eskatzeko, eta hori sahiesteko, guk proposatzen duguna honako hau da: aplikazioaren bidez zure kontsumizioa eskatu eta zuri egokitzen dizute zenbaki bat. Zenbaki horren bidez deitzen dizutenean bakarrik joan beharko zara hartzera.

-Eskuragarritasuna: Zure sarrera eskatzeko, harreman publiko batekin kontaktatu behar duzu, eta ez badazu ezagutzen nahiko deserosoa da. Beraz, gure aplikazioarekin zure sarrerak eskatu ahal izango dituzu interneten bidez.

-Diseinua: Gure aplikazioa oso modernoa da, jende gazteari zuzenduta dagoelako eta ondorioz erakargarria izango da. Hainbat argazki eta beste gauza ikaragarri batzuk edukiko ditu.



NIGHT&CO
Let's party with us

-Erabilerraztasuna: NIGHT&CO aplikazioa erabiltzeko erraztasuna handia da, AppleStoren edo PlayStore-en sartu, deskargartuta eta behin hori eginda, telefono zenbakia sartu eta kontu bat egin.

Guk gauez ateratzen garenean aplikazio honen gabezia sentitzen dugu; beraz, lana izugarri erraztuko zukeelako ustea dugu. Eskuragarritasunari begira, gure aplikazioa dohainik jarriko genuke eta “premium” aukera jarriko genuke ere, abantailak izateko.

